

Arrasate

1989ko
Martiazak 29
408. zenit.



Arrasatear egin guran

IKUSPEGIA: ROSA MONDRAGON • KIROLAK: ISIDOR UGARTE
EUREN IKUSPUNTUTIK: JUAN LUIS AREXOLALEIBA • GURE ENPRESAK: JAKION



Aldibi,
etorkizunari
aurrea
hartzuz.

- Ordezko pieza originalak
- Salmenta osteko zerbitzua
- Finantzaketa zure neurririk
- Aseguru desberdinak zure zerbitzura
- Autoen alokairu enpresa eta renting-a
- Aukerako 100 autotik gora, marka guztietakoak
- 3.000 m² automobilari eskainita



Zatoz eta ezagutu gaitzazu!



Aldibi autoak, S.A.



Izar autoak, S.L.

VOLVO

Mondrakar, S.L.



mazda

Musakola autoak, S.L.



GALLOPER

Aldikar autoak, S.L.



Co-Car, S.L.



HYUNDAI

Musakola autoak, S.L.



Aldikar autoak, S.L.

Hasi da hauteskunde kanpaina?

Izenburuko galdera bera egin nion neure buruari orain dela pare bat egun, telebistan eta beste komunikabideetan ez baitzen alderdi bateko eta besteko iritzi eta eztabaida besterik entzuten. Baina ez, oraindik falta dira hilabete batzuk, urrian dira, ezta? Ordurako benetan nazkatuta egongo gara, bai politikariek ematen dituzten argudio korapiltsu, aspergarri eta nahastuak entzuten, bai bata besteari botatako kontrako arrazoioak eta irainak jasaten.

Ez ote dute behingoz aukera hau elkarrizketa erraztu eta proposamen positiboak aurkezteko aprobetxatuko? Gizarteak dituen arazo kezkarrienak irtenbiderik gabe segitzen dute.

Azken egunotan, denok irakurri edo entzun izan dugu



Rosa Mondragon

“Bozketa egunerako nazkatuta egongo gara politikarien arrazoibideekin”

Jaurilaritzak eginiko inkestan kaleratu diren datuak. Gai honekin lotuta, ikusi da Euskal Autonomia Erkidegoko herritarrek ez gaudela politikaz interesaturik, eta lau biztanletik batek baino ez duela nolabaiteko interesa. “Ez da harrizkoa!”, pentsatu nuen irakurri nuenean.

Dena dela, badago kontraesan txiki bat, zeren eta hauteskundeetako datuek frogatzen baitute hautesleen %70 batek ematen dutela botua. Azken finean, ez da ba izango, barneratuta dugula politikariak horrelakoak izan behar direla, eztabaidatu besterik ez dutela egin behar?

Martxa berdinean ezagutzen ditugu hauteskunde kanpainen izan edo ez, nahiz eta pertsona aldatu, alderdi batekoak edo besteak izan; baina badirudi politikak, maila

txikian edo handian, denoi dagokigun gaia dela, guztioi eragiten digula, nahiz eta gehienetan kritikatu.

Eusko barometroa deitu izan den azterketa honetako datuekin jarraituz, gauza bitxiak ezagutu ditugu, hor ditugu alderdi politikoei buruzko balorazioa, politikariei jarritako nota, independentziaren inguruko iritzia, gehien kezkatzen gaituen arazo sailkapena...

Ez noa datu guztiei errebasoa egiten hasiko, nahiko zabaldu dira jadanik eta. Baina nire ustez aipamen berezia merezi duen bat azaldu nahi dizuet.

Inkestatutako heren bat soilik sentitzen da euskalduna, eta hautatzekotan %15 euskaldunago sentitzen direla diote, espainol baino. Azkenik, beste heren batek dio euskal herritar eta espainol sentitzen direla era berean. Ez dakit datu hauek erreferentzia bezala har daitezkeen, benetakoak izango diren, baina nik egin dudana bezala, zuengan hausnarketa pizteko balioko dutela uste dut. ■

“Denok dakigu Arrasaten PPrez zerrendetan bere burua aurkeztzen duen jenderik ez badago, herri honetan erabateko askatasunik ez dagoelako dela”

Ignacio Gimeno

24.257

bizilagun ditu Arrasatek

Aurtengo urtarrilaren leian egin zen erroldak dio Arrasatek 24.257 bizilagun dituela, orain bi urte baino 314 gutxiago. Azken bi urte hauetan hildakoak jaiotakoak baino gehiago izan dira. Dena den, alderik handiena emigrazioan dago: Arrasate utzi dutenak etorri direnak baino gehiago izan dira: 260 gehiago.

ITURRI ONETIK

Consumer Interneten, Arrasate bidez

Eroski kooperatibak Interneten jarri nahi du Consumer —lehen Eroski izena zuena— aldizkariaren euskarazko bertsioa. Horretarako, hileroko hileroko euskaratu eta sarean jarriko litzatekeen paperean nagusiki gaztelaniaz argitaratzen den aldizkaria.

Asmoa aurrera atera ahal izateko, Elorrioko arduradunak harremanetan jarri dira Arrasateko enpresa gazte batekin. Tratuan ari dira eta, antza denez, azkenean enpresa hau arduratuko da aldizkaria euskaratzen eta sarean jartzen.

Badirudi, bestalde, bestelako itzulpenak UZEIk egin-go dizkiola Eroskiri, orain arte bezala.

ARKO
ARRASATE
KOMUNIKABIDEAK
ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate)
Komunikabideak Oñalora kalea, 31
20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 77 05 65. Faxa: 77 09 40
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Laguntzaileak: Arrasateko Udala, **Zuzendaria:** Joxe Aranzabal, **Kazetariak:** Marijo Deogracias, Marian Porcel, Naiara Gorroho, **Publizitatea:** Kaitin Allende, Nerea Zallo, Arantza Lagunilla, (Tel.: 77 08 15), **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain (Tel.: 79 02 26) **Disenatzaia:** Txos Azurmendi, **Asteburuetako berriemakileria:** Lierni Urbarren, **Kolaboratzaileak:** Ander Etxeberria, Maria del Campo, Iban del Campo, Ixaro Artola, Bixente Azkarate, Joxerra Aguirre, Juan Luis Azkarate, Aitor Orobenaga, Mikel Irizar, Udaleko Gazteria Salla, ASA taldea, Eneko Allende, Besside M. E., Karmelo Urbarren, Bixente Pagoaga, Amaia Jauregi-Arriburu, Juan Bautista Agoria, Jose Mari Astigaraga, Jesus Larrañaga, Matilde Sainz, Iker Barandiaran, Xabier Lelona, Karmele Perez, Kopl, Jon Ozaeta, Jabi Luengo, Malle Barrena, **Banaketako arduraduna:** Jasone Mendizabal-AED, (Tel.: 77 12 28), ©ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.300. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. **Frankoko konstantia:** **Inprimategia:** Gerfu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkariaren adierazitako esanien eta iritzien erantzukizunik.

ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.
Azaleko argazkia: Ignacio Perez.

 Arrasateko Udalerria
 Gipuzkoako Foru Aldundia
 Eusko Jaurlaritzako Kultura Saila

D EREDUAREN GARRANTZIA

Matrikulazio kanpainan sartuta gaudenez, hona hemen eskaintzen diren hizkuntza ereduari buruzko gure iritzia.

Hiru dira gaur egun irakaskuntza ertainetan aurki ditzakegun ereduak: A, B eta D.

A ereduaren ikasketak gaztelania hutsean egiten dira. Beraz, eredu honetan ikasketak burutzen dituen ikaslearen perfila erdalduna da, elebakarra. Honek ez dio erantzuten hemen daukagun hizkuntza errealitateari eta oztopatu egiten du euskalduntze prozesua.

B ereduak bi hizkuntzak erabiltzen ditu ikasleen formakuntzarako; ikasgai batzuk euskaraz eta besteak gaztelaniaz. Eredu honetan ikasten duten ikasleen artean argi ikusten da hauek ez dutela ikaslea erabat euskalduntzen eta hainbat arlotan gaztelaniaren beharra izaten dutela. Honek eragin zuzena du: ikasleak bizitzako esparru desberdinetan gaztelania behar izaten du ongi adierazteko. Eskola uzterakotan, adierazteko gaitasun handiena gaztelaniaz dute eta hizkuntza hori izango dute aurrerantzean komunikatzeko tresna.

Azkenik, D ereduak, ikasleek jasotzen duten formakuntza guztia euskaraz delarik. Eredu honetan, aurreko bietan bezala, ikasleak irakaskuntzan ere euskara izango du komunikatzeko tresna, euskara bera ere sakondu eta landuko duelarik. Honela, arlo guztietan izango du euskaraz

adierazteko gaitasuna eta erraztasuna.

Irakaskuntza maila guztiekin bukatzeko, unibertsitatea dugu. Arrasate inguruan zein Euskal Herri osoan ditugun unibertsitateetan lan handia dugu oraindik hauek euskalduntzeko, sarritan suertatzen baita ikasketa guztiak euskaraz egin eta unibertsitate sartzarakoan ikasketak gaztelaniaz bukatzea. Honek aurrean ikasle, irakasle zein unibertsitate inguruan gabiltzan guztiona da apostua. Euskal Herria euskalduntzeko, beharrezkoa da euskara izatea gure hizkuntza esparru guztietan. Zeregin honetan irakaskuntzak berebiziko garrantzia du eta betebeharrak D ereduak (ertainetan) eta euskal adarrak (unibertsitatean) soilik betetzen dute. Horregatik bultzatu behar ditugu eredu hauek, ikasleok eredu hauetan matrikulatu behar dugu eta ikasketa guztiak euskaraz egin ahal izateko eskubidea aldarrikatu.

*Euskal Herrian
Euskaraz*

NON HASTEN DA BENETAKO ELKARTASUNA?

Oso goragarria da gizarteak ardura sentitzea premia nabarmenak jasaten dituzten beste herriekiko. Baita jendea erakunde desberdinetan, gobernuarenak eta gobernuarenak kanpokoak, elkarlanean aritzea.

Hala eta guztiz ere, zer gertatzen da gure herriko, auzo-

ko, kaleko pertsonen gure laguntza behar dutenean? Egia esan, zer da errazagoa, behar ez dugun dirua ematea ala hurbilen dauden pertsona hauei zuzenki laguntzea eta eurak onartuz elkarrekin bizitzea? Galdera hauek gogoeta egitera bultzatzen dute.

San Andres Herri Eskolako irakasleentzat gizarte ezberdintasunak gainditzeko saiatzea, ikasleak beste kultura batzuekiko errespetuan eta tolerantzian hezitzea eta ezberdinak direnak onartzea ez da teoriarik geratu den zerbait. Zeregin zehatza eta praktikoa bilakatu da eta honek ahalegin sendoa eskatzen digu. Erronka hau gogoz baina bakuntasun gabe hartu nahi dugu, zerbait erdietsi dezakegulakoan. Horrela, bada, pozik sentituko gara.

*San Andres Herri
Eskolako irakasleak*

LAGUNDU PORTUGALDARREI

Ondoren sinatzen dugun taldeok eta lagunok Arrasaten bizitzeko nahia aspaldi adierazi zuten bi ijito familiarren pobrezia egoera dela eta kezkatu, honako hau adierazi nahi dugu:

• Bi familia hauek Arrasaten bizi nahi dutenez, guztioi dagokigun arazoa dela eta denok dugula zer eginik horretan. Badakigu bakoitzaren erantzukizuna norberaren baliabideen arabera dela, baina *elkartasunari dagokionez, bera da guztion erantzukizuna.*

• Arrasaten denbora luze egon diren arren (1994ko irailetik), gaur egun ez dutela diru laguntzarik jasotzen administrazioetik. Laguntza publikoa jasotzeko duten eragozpen bakarra administrazioak eskatzen duen erroldatze epea ez betetzea dela. *Hau arazo burokratiko eta formalista dela uste dugu.*

• Jakinik tokiko egitea eta elkarbizitza salbaezinak direla gutxieneko zenbait baldintzarik gabe, gorpil zoro baten aurrean gaude, bizi baldintza txar hauek elkarbizitza arazoak sortarazten baitituzte, eta hauek, aldi berean, jarrera xenofoboak, arrazistak eta bazterkeria.

• Honegatik guztiagatik eskatzen diogu Arrasateko Udalaririk idazki hau kontuan har dezala eta jar ditzala administrazio arazoak gainditzeko bideak, bi familia hauek laguntza publikoak lehenbailehen jasotzen has daitezten. Besterik gabe, agur t' erdi.

*Arrasateko SOS
Arrazakeria eta herriko
beste 37 erakunde*

LENIZ AUTOESKOLAREN ZUZENKETA

“Leniz” Autoeskolako osatua 408. zenbakian agertzen zenez, 181.290 pta.koa da. Bere aurrekontuan okerra egon dela ezagutuz, Leniz Autoeskolak barkamena eskatzen du eta denon aurrean 181.290 pta. ren ordean, 191.290 pta.koa dela agertu.

Leniz Autoeskola



ERRASTI KRISTALDEGIA

**Plastiko eta burdinazko hodiak
beirina eta kristalak
osagaiak**

Olarte kalea, 47 beheka Tel.: 79 22 55 79 14 25

**UGARAN
jatetxea**
Garagartza auzoa
Tel.: 79 76 58
ARRASATE



MEMESA
Industria hornidurak

Tel. 71 24 25

Zer egin daiteke kalean ikusten diren txakur kakekin?

Deba Beheko udalek pintzak banatu dituzte txakurren jabeen artean



Joana Quintas
17 urte
Ikaslea

Normalean mendira eramaten dut eta bestela jaso egiten dut. Leku bereziren batzuk ipini beharko lirateke.



Iker Letona
21 urte
Ikaslea

Neurriren batzuk hartu beharko lirateke, isunak jarri... Bakoitzak bere txakurraren kakak jaso beharko lituzke.



Jose Migel Aranzadi
32 urte
Langilea

Ahalegintzen naiz txakurrak edozein tokitan egin ez dezan kaka. Ondo iruditzen zait kakak batzeko neurriak hartzea.



Angel Aiani
58 urte
Langilea

Hiriburu batzuetan pape-rekin eta pintzekin jasotzen dituzte. Hemen ere horrelako zerbait egin beharko litzateke.



Juan Ramon Corral
21 urte
Langilea

Jabeak jaso beharko lituzke txakurraren kakak. Udalak boltsa edo eskularruak banatu beharko lizkieke txakurren jabeei.



Agustin Benitez
50 urte
Langilea

Jabeak poltsa bat eraman beharko luke eta bere txakurraren kakak jaso. Oso zikin egiten du kalea kakaz beteta ikusteak.



Isabel Tamame
39 urte
Langilea

Jabeek jaso egin beharko lituzkete. Zenbait lekutan egiten da eta hemen ere neurriak hartu beharko lirateke.



Consuelo Tena
58 urte
Etxekoandrea

Txakurrak lotuta eraman beharko lituzkete kaka edozein lekutan egin ez dezaten. Gainera geroz eta txakur gehiago dago eta oso ez-atsegina da.

ORTO + LAGUN

O R T O P E D I A

Izan zaitetz zeure osasunaren lagun.

Horretan geuk lagunduko dizugu!

Kontzeziño, 2 • ARRASATE • Tel.: 79 89 34

GAMMA

- ELEKTROLOGIA ZENTRUA
- BEHIN BETIKO DEPILAZIOA

Aurpegi eta gorputzerako tratamendua • Doaneko kontsulta

Maalako Errabala, 17, 1.A • ARRASATE • Tel: 79 51 25

Arrasate

LANAK

GENERAL GARRO

Konponketak direla eta, egunez kalea itxita egongo da. Aparkatzea debekatua.

KONTZEZIÑO AUZOAN

Bidea asfaltatzen ari dira.

OBENERREKA


Jolastokia berritzeko lanak hasi dira.

TAKOLON

Biribil berria egiten ari dira oraindik. Luze joko du.

AZATZA ETXEETAN

Monterron eta Musakola lotuko dituen pasealekua egiteko lanak.



Biztanleak: 24.257
Eremua: 33 Km²
Garaiera: 211 metro


Eguraldiaren aurreikuspena



OSTIRALA 29



LARUNBATA 30



IGANDEA 31

Lainoak izango dira tarteka. Zaparrada ahulen bat egin dezake mendi aldean. Tenperaturak gora egingo du.

Tarteka lainoak eta zaparrada bat edo beste egin dezake. Haizeak Mendebaldetik joko du.

Tarteka euria bota dezaketen lainoak izango dira. Tarteka Hegomendebaldeko haizeak gogor jo dezake.

Ilargia



ilberria

Ekinaren 3tik aurrera ilgora izango da.

Mezak

San Frantzisko

(Frantziskotarren elizan Parrokia berritu arte)
Larunbatean
 09:00 (elebiduna)
Igandean:
 09:00 (euskaraz)
 10:00 (euskaraz)
 11:00 meza nagusia.
 12:30 (erdaraz)
 19:00 (erdaraz)

Uribarri

Larunbatean
 19:00 (elebiduna)
Igandean:
 11:30 (euskaraz)
 12:30 (erdaraz)


San Andres

Larunbatean
 19:00 (elebiduna)
Igandean
 10:00 (erdaraz)
 11:00 (euskaraz)
 12:00 (erdaraz)
 13:00 (erdaraz)

Santa Teresa

Larunbatean
 19:00 (elebiduna)
Igandean
 10:30 (erdaraz)
 11:30 eta San Isidron (euskaraz)
 12:30 (erdaraz)


Urkuluko uraren maila
%96,9



Distantziak

Arrasate									
121	Baiona								
690	579	Bartzelona							
57	170	620	Bilbo						
1.159	1.038	2.883	1.207	Brusela					
72	50	529	119	1.088	Donostia				
40	180	530	66	1.206	118	Gasteiz			
107	120	437	159	1.180	92	93	Iruñea		
391	519	621	395	1.556	469	351	407	Madril	
864	743	1.113	911	296	792	910	884	1.260	Paris

Kalitateak mugarik ez.



ARGI-PLASTIC

leihoen fabrikazioa P.V.C, aluminio eta poliuretano
Zigorrola, 1 8. Pabilioaia
Tel.: 77 11 30
ARRASATE



**ZUZEN-ZUZENEAN
FABRIKATIK
ZURE ETXERA**



Kataide industrialdea • 6. pabilioa • ARRASATE • Tel.: 79 91 75

29
ostirala

■ ZINEA

Las alas de la paloma
Alai zineman, 19:00etan eta 21:30etan.

■ THE JURASSIC BAND

Kontzertua eskainiko du The Jurassic Band musika taldeak aterpe tabernan. Emanaldia gaueko 23:00etan izango da. Musikariek batera, Marcial mago orerretarra arituko da. Sarrera dohainik izango da.

30
larunbata

■ ZINEA

Megasonics Alai zineman, 17:00etan. *Medianoche en el jardín del bien y del mal* 19:00etan eta 22:00etan.

■ KONTZERTUA
GAZTETXEAN

El corazón del sapo, Zaragozako taldea, eta 30%, andoiaindarrak. Gaueko 21:00etan.

■ ARRASATE MUSIKALEN
XI. TOPAKETAK

Arrasate Musikalen perkusio taldea eta Arrasate Musikalen banda txikiaren emanaldia izango da Amaia antzokian, goizeko 11:00etan.

31
igandea

■ ZINEA

Megasonics Alai zineman, 17:00etan. *Medianoche en el jardín del bien y del mal* 19:00etan eta 22:00etan.

■ OLDARKORTASUNA
MINTZAGAI

Guraso taldeak Agresibitate edo oldarkortasunaren gaineko hitzaldiak antolatu dituzte Umezaintza Haur-Eskolan. Maite Gartzia eskainiko duen hitzaldia arratsaldeko 18:00etan izango da. Lehenengo txanda honetan euskaraz arituko da. Ostegunean, berriz, gaztelaniaz eskainiko du hitzaldia leku eta ordu berean.

1
astelehena

■ ZINEA

Medianoche en el jardín del bien y del mal 19:00etan eta 22:00etan.

3
asteazkena

■ SOINU KONTZERTUA

Arrasate Musikalek akordeoi kontzertua eskainiko du arratsaldeko 19:00etan. Emanaldia Arrasate Musikaleko areto nagusian izango da.

2
astearte

■ ZINEA

Medianoche en el jardín del bien y del mal 19:00etan eta 22:00etan.

4
osteguna

■ LARRY FLYNTEN
ESKANDALUA

Sexualitateari buruzko zine zikloa amaituko da ostegunean. *Larry Flinten* eskainiko da.

**HIES
EKIMENA**
Astelehen, astearte
eta ostiraletan
5etatik 8etara.
Tel.: 79 26 99

**TXOKO
TABERNA**
Cure berezitasunak pintxo eta
mokau gozoak

GORKA
ILEPAINDEGIA
SOLARIUMA
Ferrerias, 35 ARRASATE
Tel.: 77 13 78

dalua filma eskaniko da Amaia antzokian gaueko 21:30etan.

■ **BIDEO EMANALDIA**

“Gure Mendeko Jendea: 1968, askatasun herria” bideo emanaldia eskainiko du Zutikek. Bideoa arratsaldeko 19:30etan eskainiko dute Jai-zale elkarteak. 68ko mugimenduaren inguruan Britainia Handiko BBC telebistak egindako erreportaje bat da.

■ **TRONBOI KONTZERTUA**

Arrasate Musikalek tronboi kontzertua eskainiko du arratsaldeko 19:00etan. Emanaldia akademiaren Areto Nagusian izango da.

■ **EHU-KO IRAKASLE KALERATUAK**

Eskola Politeknikoan hitzaldia eskainiko dute Jose Ramon Etxebarriak eta Nikolas Xarmadok EHuko irakasle kaleratuek. Hitzaldia arratsaldeko 19:00etan izango da.

■ **ONDASUNEN TRANSMISIOA BASERRIAN**

“Senipartea edo Herentzia” hitzaldia eskainiko du Amaia Zabaleta abokatuak, 18:30etan Gesalibarko Jentilola elkarteak.

■ **ARRASATE MUSIKALEN IZEN EMATEA**

Arrasate Musikalek ekainaren 19ra arte luzatu du izena emateko epea, musika akademian sartu nahi direnentzat. Arratsaldeko 17:00etatik 20:00etara eman daiteke izena, musika eskolako idazkaritzan.

■ **UDAKO BRIGADAK**

Komite Internazionalistak Mexiko, Guatemala, Kuba eta Nikaraguara joateko brigadak antolatu ditu. Udako brigadak uztailan eta abuztuan izango dira. Interesatuak Donostiako 34 04 04 edo Bilboko (944) 79 07 03 zenbakietara dei dezakete.

■ **EZKONTZAURREKO TOPAKETAK**

Ekainaren batetik 5era Ezkontzaurreko Topaketen bigarren txanda egingo dute artziprestaldeko lau senar-emaztek zuzenduta. Iturriotz kaleko 43an arratsaldeko 20:30etan egingo diren topaketak, aurten Eskoriatzan, Oñatin, Aretxabaletan eta Arrasaten ezkonduko diren biko-

teei zuzenduta daude. Berri gehiago nahi izanez gero, deitu 79 17 72 zenbakira.

■ **KUBA ARGAZKIETAN**

Juan Luis Irigoienek argazkiak daude ikusgai Harresi aretoan. Irigoienek Kubari buruzko ikusmira partikularra. Zabalik 18:00etatik 20:00etara eta larunbat eta jai egunetan 12:00etatik 14:00etara eta 18:00etatik 20:00etara.

■ **HAURREN DANBORRADA**

Jadanik hasi dira haurren danborradako entseiuak. SUDCEk jakitera eman duenez, parte hartu nahi duten neska-mutikoak oraindik denboraz daude. Entseiuak astearte eta ostegunetan izaten dira, arratsaldeko 18:00etatik 19:00etara. Danborrada ekainaren 20an izango da, larunbatez.

■ **ARRASATEARRAK DONOSTIAN**

Ekainaren 6an Donostialdean bizi diren arrasatearrek ospakizun eguna izango dute. Futbol partida, meza nagusia eta bazkaria antolatu dituzte egun horretarako. Izena eman nahi dutenek, Jose Mari Beitiari (21 36 59) edo Agustín Azkoagari (46 93 48) deitu.

■ **BODEGETARA IRTEERA**

AEDk antolatutako ardo ikastaroa amaitzeko, Errioxara irteera egingo du ekainaren 6an. Irteera horretan Samaniego eta Bastidako bi bodega bisitatuko dira. Bazkaria Samaniegoko hotelean egingo da. Autobusa Garibai kaletik aterako da, goizeko 09:30etan. Prezioa 5.000 pta. Izena emateko epea datorren asteazkenean, ekainak 3, amaituko da.

■ **MENDEKOSTE BARAUALDIA**

Maiatzaren 30ean Maristas Kontzepzionisten komentuan Mendekoste barauladia egingo da 21:00etan. Hara joan nahi dutenentzako autoak Garibai kaletik aterako dira, 20:30etatik aurrera.

■ **EHIZTARIEN EGUNA**

VI. Ehiztari eta Arrantzaleen eguna egingo dute Lasarteko hipodromoan. Automobil, motor, auto zahar eta erremolke, arrantza, plater jaurtiketa eta txekor hezitzea eta txekor hezitzea besteak beste egingo dira. Tartean Gisasolak harri errektangularra jasotzeko saiakera egingo du. Txakur lehiaketarik ere izango da. Sariak ere banatuko dira Gipuzkoako Ehiza eta Arrantza Federakuntzak antolatutako Ehizaren egun honetan.

LAN ESKAINTZAK

Arrasateko Udalak aldi baterako lanpostu hauek bete nahi ditu:

- **Liburuzain laguntzailea** (egun erdiz)
- **Gazte informatzailea** egun erdiz
- **Bi lurperatzaile laguntzaile** egun erdiz

Oinarriak: Udaletxean jaso daitezke.

Izena emateko azken eguna: ekainaren 8a, berau barne.



ARRASATEKO UDALA

Pertsonal Saila ■



Jabier Etxebarriari

mila esker eman nahi diogu lan eremuan euskarari emandako bultzadagatik.

Bere sendiari doluminik zintzoenak.

Euskalaren izenean



USTEAK USTE

Zalaparta

Udalak joan den astelehenean egin zuen osoko bilkura patxadatsua izan zen: hamabost gaitik hamahiru aho batez onartu ziren. Beste biak —Gurea zinema zegoen eraikuntzan udalak duen etxabe bat saltzea proposatzen zuena eta udal araudi berria— eztabaida lasaiaren ostean erabaki ziren.

Galde-erreguen txandan, ostera, zalaparta piztu zen. PPko zinegotziak bere kexua agertu zuen HBko zinegotziak mahai gainean Mahai Nazionaleko kideen eta preso guztien askatasuna eskatzen zuen orria jarri zutelako. Bat batean denen begi-belarriak —Antonio Palaciosen bizkarzainarenak ere bai— erne jarri ziren, etor zitekeenaren zain.

Batak besteari jaleo bilatzaile, besteak hiltzaileen babesle eta tartean alkatea, errespetua eskatuz. Zorionez, kontua ez zen bere onetik atera. Hala ere, beldurra ematen du ikusteak zein erraz piz daitekeen sua herri honetan, udal politikarekin zerikusirik ez duten gauzetan, gainera.

Joxe Aranzabal



AEDk 15 urte: beti aurrera ametsak bete arte

Juan Luis Arexolaleiba*

Urteurrenak, jai eta ospakizunetarako aukerarekin batera, hausnarketarako aukera eman behar digulakoan nago.

AED sortu aurretik euskalgintzan zebiltzan eta, gaur egun ere, dabilzan entitateen lana goraiatu egin behar da. Dena den, AEDren sorrerak eta dinamikak demaseko eragina izan du eta duela 15 urte urrutiko ametsak zirenak gaur egun errealitate ditugu. AEDk, nire ustez, hasiera beretik finkaturiko ardatzen bidetik jarraitu behar du: euskaraz bizitzeko aukerak sortzen eta euskararen aldeko sentsibilizazio lana egiten. Euskalgintzan dauden entitateak eta indarrak metatuz, euskara normalizatzeko batasun—eta elkarlan-parametroetan, partidukeriatik eta beraien presiotik urruti. Aurreantzean, eskola-munduan, aisialdian, herriko komunikabideetan, kultura elkarleen funtzionamenduan, etab.etan lortutakoari eutsi egin behar

zaio. Eta horiekin batera, arlo sozio-ekonomikora ere iritsi behar du euskarak. Integratzen joan behar da eta auzo-eta hasitako dinamika indartu. Baterako zein besterako, gero eta baldintza hobekak ditugu.

Honen guztiaren aurrean, zein izan behar da Arrasateko Udalaren eta alderdi politikoen zeregina? Udalak, elkarlanaren bidetik, egiteko garrantzitsua jokatu du euskararen normalizazio dinamikan eta, aurrerantzean ere, horrela segitu behar du. Horretarako, udala euskaldundu egin behar da. Egia da, zerbitzuen eskaintzan eta langileen prestakuntzan urrats sendoak eman direla, baina

“ Arrasateko zinegotziak euskaraz jakin dezaten neurriak hartu behar dira ”

gaur egun, oraindik, gaztelania da nagusi udal bileretan. Hori horrela da, zinegotzi askok euskara ulertu ere egiten ez dutelako. Bilera eta dokumentu gehienak euskaraz bideratzeko ez dago inolako arazo teknikorik, baina hainbat zinegotzi euskara ez jakiteak oztopatu egiten du euskarazko funtzionamendua.

Eta alderdi politikoei dagokienez, zer? Nahiz eta partidu garrantzitsu gehienek Euskararen Hitzarmena sinatua izan, gehienentzat euskara ez da eguneroko lan-tresna, itzulpen etab. en bidez gaintu beharreko arazoa baizik. Ordua heldu zaie alderdi politikoei eta Arrasateko Udalari euskaraz lan egiteko; hau da, eredu izan behar dute adierazpenetan ezezik, baita eguneroko jardunean ere. Hona hemen proposamen zehatza: Arrasateko Udalean datorren udal legegaldian euskaraz funtzionatzeko (hauteskundeak urte bete barru dira) Arrasateko zinegotziak euskaraz jakin dezaten neurriak hartu behar dira. Orain dute alderdi guztiek aukera eta erronka.

Izan ere, Arrasateko Udalak, euskalgintzan agente aktibo izan nahi badu, lehenik eta behin, eredu ezarri behar du eta. Zorionak Arrasate, zorionak euskaltzale, zorionak AED.

* HBko zinegotzia

Pavimentos AGR
ARROZTEGIA

Mota guztietako zoruak • Lijatu eta barnizatuak • Erradapiak • Leihoak • Ateak
Eskailerak • Armairu enpotratuak eta abar
MATERIALEN SALMENTA

Erakusketa eta biltegia:
Kale Txiki, 3 - behea • ARRASATE
Tel.: 77 11 20 • Faxe: 77 11 20

Sili Sili

Martxa eta estilo handiko arropa

Iturriotz, 9 • ARRASATE
Tel.: 79 81 82

BERGARA


1 Zezenak jaietarako

Mendekoste jaiak gaur hasi dira eta asteartera arte iraungo dute. Asteburuan, zezenketak izango dira zezen plazan. Larunbatean, "recortadores navarros" delakoek erakustaldia eskainiko dute 18:00etan. Igandean Javier Castañok eta David Callejak lau txekor toreatuko dituzte, arratsaldeko 18:00etan. Entzierroak goizeko 09:00etan izango dira igandean, astelehenean eta asteartean.

OÑATI

2 Turismo eskaintza

Deba Garaia, Urola Garaia eta Urola Erdiko mankomunitateen ordezkariak Hiru Tenpluen Ibilbidea aurkeztu zuten joan den asteartean Oñatiko udal txean. Ibilbide honek, Loiolaiko basiliza, Arantzazuko santutegia eta Zumarragako Antigua basiliza batzen ditu. Hiru tenpluak ardatz hartuta, hiru eskualde gipuzkoarren garapen turistikoa bultzatu nahi da. Datorren urtean 27 milioi pta inbertituko dute ibilbidean. Urtero 300.000 lagun baino



gehiago erakartzea espero dute.

ESKORIATZA

3 Udako Kirol kanpaina

Eskoriatzako eta Aretxabale-tako kirol kanpainak hamahi-

ru modalitate izango ditu aurt-en: badminton, tenisa, mahai-ko tenisa, pilota, igeriketa, aerobic, piraguismoa, golfa, eskalada, espeleologia, izad-ian egindako jarduerak, mendi bizikleta eta orientazioa. Sei eta hamazazpi urte bitarteko-

ek eman dezakete izena, ekai-naren 23a baino lehen, herri-ko kiroldegietan.

ARETXABALETA

4 UDA ez da igoko

Preferenteko Aretxabaletak hirugarren mailara igotzeko aukera galdu zuen joan den asteburuan. Etxetik kanpo, Urolarekin neurtu zituen indar-rak, baina partidaren amaie-ran berdinketa nagusitu zen markagailuan. Denboraldiko azken partida Ibarra izango da, Lazkaoren kontra. Futbol zaleek norgehiagoka ona ikus-tea espero dute.

ANTZUOLA

5 Antzuola Herria beka

Antzuolako Udalak *Antzuola Herria* bekaren hirugarren edi-ziorako baldintzak ezarri ditu dagoeneko. Aurtengo gaia honako hau da: "Larrugintza ezagutzea eta ezagutaraztea". Eskabideak ekaina osoan zehar aurkeztu ahal izango dira uda-letxean. Diru laguntza 500.000 pezetakoa da. Hartzen duenak hamabi hilabete izango ditu lana bukatzeko.



URONDO

Elektrizitatea

- * Elektragaiak
- * Instalazioak
- * Automatismoak
- * Proiektuak
- * Argiztapena
- * Bobinaketak

Musakola auzoa, 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 postakutxa • ARRASATE
Tel.: 79 78 15 / 77 10 42 Faxa: 77 14 76

Gurea etxaldeko beheko solairua salduko du udalak

Astelehen goizeko osoko bilkuran hainbat erabaki hartu zituen udalbatzak. Horien artean Gurea etxaldeko beheko solairua 112 milioi pezetatan saltzea. Solairu hori udalarena da eta 500 m² inguru ditu. Hirutarikoak eta PPK saltzearen alde egin zuten. EBk eta HBk, kontra. Hauen iritziz, salmentarekin udalak espekulazioa erraztu eta beste proiektu batzuetarako erabil dezakeen tokia galtzen du.

UDAL ARAUDIA

Udalbatzaren lan egiteko modua arautuko duen araudia ere onartu zen. Hau 86. urtetik berritu gabe zegoen. Aurten hiru proposamen izan dira berri berri: EBk egindakoa, Herri Batasunarena eta hirutariko gobernua aurkeztutakoa.

EBk eta HBk berritasunik ez duen proposamena aurkez-



Gurea etxaldeko beheko solairua enkantera aterako du udalak.

tu izana leporatu zioten hirukoari. Honen bozeramaleak, aldiz, egokitzat jo zuen.

Ezker Batuak aurkeztutako proposamenak erreferenduma berreskuratzeko premia jasotzen zuen. Horrez gain, herritarrez osatutako batzordeek udalaren arlo desberdinetan parte hartu beharko lukezela defendatu zuten. EBren proposamena ez zen onartu. Bai, ordea, hirutariko gobernua aurkeztutakoa. Segurtasun eta osasun batzordea eratzeari ere onartu zen, udaleko langileen lan baldintzak gainbegiratzeko.

Bukatzeke, eztabaida sortu zen Antonio Palacios eta Juan Luis Arexolaleibaren artean, HBk Mahai Nazionalaren eta presoaren askatasuna aldarrikatzen zuen kartela plenoko mahaian ezarri zuelako.

Udala euskararen erabilera areagotzearen alde

Arrasateko Udala euskararen erabilerearen bideragarritasun plana egiten ari da. Asteleheneko udalbatzarrean planaren txostena onartu zuten aho batez zinegotziek. Bideragarritasun txostenak batetik, herritarrekin eta gainerako erakundeekin izaten diren harremanetan erabili beharreko euskara finkatuko du. Bestetik, euskararen presentzia jendearean, argitalepenetan kalean zehazteko balioko du.

Planak hiru fase ditu. Lehenengo, gehienbat euskaldunak diren erakundetan ezarriko da plana. Gero, idazkaritza, gizarte zerbitzua, pertsonal zerbitzu eta auzoetako sailetan. Hirigintza eta Mantenimendu sailetan, berriz, hirugarren fase batean earriko da.

Txostenaren arabera, alderdi politikoek udal hauteskudeetarako, hautagaiak euskaldunak izan daitezela hartu beharko lukete kon-tuan.

Ikerlanek 1.000 milioi pezeta baino gehiago irabazi zituen iaz

Ikerlan enpresak urteko batzar nagusia egin zuen joan den ostegunean. Balantzea oso ona izan da, %8 igo ditu eta bere irabaziaz Ikerlanek. Guztira, 1.460 milioi pezeta.

Irabazien igoera hau kontratupeko ikerkuntza proiektuei esker eman da gehien bat. Ikerkuntza + Garapeneko proiektu horiekin 912 milioi pezetako irabaziaz lortu ditu, 96an baino %11 gehiago. Kontratupeko proiektu

horietako bat igogailuak egiten dituen Hernaniko Orona enpresarekin egindakoa da.

Aurten lortutako irabaziei, nazioarteko ISO 9001 zuiritagiria gehitu behar zaie, produktuetan eskaintutako kalitateari esker.

Urrian edo azaro alde- ra, bestalde, Ikerlanen energia dibisioa Arabako Teknologia Elkartera eramatekotan dira, eskaintza hobe egin ahal izateko.

IKASTARO TRINKOAK ETA ERREKUPERAZIO IKASTAROAK



UDA HONETARAKO

Aprobetxa ezazu ondo aurtengo uda, zeure aisialdiaren tarte bat hizkuntza bat ikasteari eskainiz; konturatu gabe ingelesa, frantsesa edo alemanera hitz egiteko gai izango zara.

Uztaila
egunean 2 ordu

Hizkuntza bat gehiago,
muga bat gutxiago

HAUR ETA GAZTEAK
goizetan, 11etatik 1era

HELDUAK
arratsaldeetan, 4etatik 6etara

Ikasleek multimedia baliabideak eta mediaketa "dohainik" erabiltzeko aukera dute.

ALEMANERA
FRANTSESA
INGELES

 **CIM**
HIZKUNTZAK-IDIOMAS

Olakua, 14
Te. 943 71 60 00
OÑATI

Araba Etorbidea, 4
Tel. 943 71 20 55
ARRASATE



NEREA

Erdiko kale, 28
ARRASATE
Tel.: 79 13 43



Bainujantzitan
espezialistak!





SAIOA GIMNASIOA

Zuzendari Teknikoa: Iñaki Muñoz
Kirol Tekniko Gorena • C.N. 3 D.A.N Entrenatzaile Nazionala

**Badator uda!!
Presta zaitez!!**



Saioa Gimnasioan pertsonal prestatua eta tresneria egokiena daukagu, zure gorputza sasoi onean jartzeko.

Zatoz eta galdetu!

Kontzeziño, z/g, tunela • ARRASATE • Tel: 79 97 31

EGUZKITARAKO
Betaurrekoak
3.500
pta.tik aurrera



EGUZKITARAKO
Betaurreko graduatuak
8.500
pta.tik aurrera



Ray-Ban



revo

avette

PORSCHE DESIGN

MULTIOPTICAS



MOTO HONEN ZOZKETA
GURE BEZERO ARTEAN



Eta ordaintzeko orduan, abantaila ugari:
• MULTIOPTICASen kreditu-txartela.
• Dinu banki erosleko modurik errazena.
• Ordanketa 30, 60 edo 90 egunetan atzeratzeko modua izango duzu, batera errekargu bari.



LORTU EZAZU
MULTIOPTICAS-en
"TRAVEL CLUB" -
PROGRAMAKO PUNTUAK

**ERAMAN
EZAZU
OPARI
EDER BAT**



MULTIOPTICAS LARRAÑAGA

Ibargarai, 16
Tel. 943 76 15 75
20570 BERGARA

Juan Carlos Guerra, 1
Tel. 943 79 29 95
20500 ARRASATE

J. M. Barandiaran Enp.
Tel. 943 88 99 86
20240 ORDIZIA

MULTIOPTICAS EIBAR

Bidebarrieta, 2
Tel. 943 20 05 22
20600 EIBAR

MULTIOPTICAS ERRETERIA

Pl. de La Esmaltería, 7
Tel. 943 51 78 11
20100 ERRETERIA

astea bi hitzetan

■ **Bidezko merkataritza**

Hirugarren Munduko garapen proiektuetan lan egiten duten gobernu kanpoko bost erakundek, *Harreman* denda zabalduko dute datorren astelehenean. Arrasateko Hiper Eroskin. Garapen bidean dauden lurraldeetako produktuak salduko dira. Berdintasunean oinarritutako merkataritza harremanak sortzea da asmoa.

■ **Posta greban**

Postetxeko langileek greba egin zuten maiatzaren 21, 22

eta 25ean, posta lege berriaren auzian aurrerapenik ez dela egin ikusita. CCOO sindikatua greba deialditik kanpo geratu zenez, herri bakoitzean langileek erabaki dute greba nola egin. Arrasaten posta bulegoa itxi zen, baina gutxieneko zerbitzuak eskainiz eta banaketa eguneroko bezala eginez.

■ **Elkarriren hitzaldia**

Fernando Arzallus, Elkarriko partaidea Arrasatera etorri zen asteartean. Elkarrin taldea Euskal Herriaren bake-

bidea bultzatu nahian *Eraiki* proiektua prestatzen ari da. Fernandok Eraiki egitasmoaren oinarriak eta helburuak azaldu zituen Monterronen.

■ **Trikitalari eguna**

Trikitalari entzun zen joan den larunbatean herriko kaleetan zehar. Arrasateko Trikitilari Eskolako ikasleek horrela ospatu zuten Trikitilarien Eguna. Trikitixa eta euskal doinuak jotzen irakatsi dute helburu. Gaur, 120 ikasletik gora ditu eskolak.



■ **PARROKIAKO KANPAIAK**

Aste honetan ezarri dira Parrokiako kanpaiak. Guztira hamabi dira. Bi urtu behar izan ziren berriro, pitzatuta zeudelako; lau garbitu eta konpondu eta bi berri jarri dira. Erlojuak ere bi kanpai izango ditu. Kanpairik handienak 2.200 kilo ditu eta 1,90 zabala da. Latinezko esaldi batek dioenez, 1480. urtekoa da.

Kanpaiak antzinakoak badira ere, garai modernoan aurrerapenak erabiliko dituzte: sakristian jarriko den ordenagailutik kontrolatuko dira.



“Herri komunikabideen aroa datorrela ohartarazteko erabili zuen Jon Sarasuak mintzalditxoaren bigarren zatia. Alor idatzian zenbait kasutan ‘gatzelaniari aurre hartuz’ gauza izan dela adierazi ondoren, telebistan ere gauza bera egiteko ‘garaiz’ daudela aipatu zuen. ‘Telebista lokalaren espazioa euskarak harrapatzea izango da datozen bost-hamar urteetan euskarak hedabideetan izango duen erronkarik garrantzitsuenaren’, esan zuen. (...)

Aretxabaletako (Gipuzkoa) telebista lokalaren kasuaz aritu zen gero. Laster jarriko da abian, eta herriko erdaldunei ere sarbidea jartzeko proposamena egingo duela ziurtatu zuen. Izan ere, erdal komunitatearengana joateko gomendatu zuen, eta, oro har, euskaltzaleek ‘jokabide zabala’ izateko”.

■ **LUIS KARLOS GARCIA**

Euskaldunon Egunkaria, 1989ko maiatzak 21

Hitzaldia

Senipartea edo Herentziak

Ondasunen Transmisioa Baserrian

Hizlaria

Amaia Zabaleta, abokatua

Non

Gesalibarko Jentil-ola elkartearen

Noiz

Ekainaren 4an

Arratsaldeko 18:30etan



ANTOLATZAILEAK:



LAGUNTZAILEAK:



ARRASATEKO UDALA
Emakume Saila ■

AED-REN URTEURRENA

Primeran ibili ziren Arrasateko neska-mutikoak joan den igandean Txatxilipurdik antolatutako Txikitxokoan. Gaztelu puzgarriak, futbolin erraldoia, auto txikiak eta beste hainbat jostailu ikusgarri izan zituzten eskura. Ausartenak sumoko borrokalaria bihurtu ziren. Lurrera eroriz gero, laguntza behar gero.



HERIBERTO ALTUNARI OMENALDIA

Leintze Ehiza eta Arrantza elkarteak orain arte bere lehendakaria izan den Heriberto Altunari omenaldia egin zion

joan den larunbatean. Gaueko bederatzietan Bedoñako Errastikua jatetxean, Jose Mari Loiti, Enrique

Garai, Jose Maria Usarraga, Patxi Arriola eta Felix Gordejuela, besteak beste, izan ziren Heribertoren inguruan.



● **Txitxinpe** ●
Berezitasunak:
Kafea, ardoa, urdaitegia,
fruitu lehorrak
Arrasate Pasealekua, 33
ARRASATE • Tel.: 79 67 76



KONTRATAK
IRYROK S.L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis
Tel.: 77 09 92 / Faxe: 79 78 14
ARRASATE

San Lorenzo, 39 etxabea
Tel.: 78 21 82
OÑATI



AEKANPADA, IEUP!


Nahiz eta fin ibili, AEKANPADARA joandako arrasatearrek ezin izan zuten kirol probetan saririk lortu. Hori bai, saiatu, saiatu ziren. Batez ere,

sokatiran. Oskar, Erdu-AEKko irakaslea, sokaren muturrean jarri zen eta, tiraka-tiraka, argazkitik kanpo geratu zen.

IZENA

Xabier Etxebarria

Joan den asteartean Xabier Etxebarria hil zen. Arkoko zuzendaritza batzordeko kide izan genuen. Euskaltzale sutsua, Danok, Euskalan, AED eta elkarte askotan egin izan du lan. Minbiziak eraman du, 53 urte zituela. Gure doluminik sentikorrena familiari.




LEHENDAKARIAREKIN

Denboraldi amaieran, Atheticeko jokalariek futboleko botak erantzi eta txirrindura igo ziren Urkiolara joateko. Arrasateko Imanol Etxebarria Taldeko partaide batzuk ere animatu ziren, horien artean Agustin Arregi taldeko lehendakaria. Argazkian Carlos Garciarekin ikusten dugu. Imanol Etxebarria Taldea handitu nahian, Agustinek bazkide berri bat egin zuen joan den ostiralean: bere bigarren semea. Zorionak Agustini!




Jende mordo bildu zen igande arratsaldean antolatutako dantza ikastaroan. Hasi aurretik irakasleek bi tango dantzatu zuten. Lehena betikoestiloan, eta bigarrena egoera barregarri bat antzetzuz.



Zure inbertsioak errentagarri egiteko,
utz ezazu estatuko lehenengo gestore
independienteak bidera zaitzan.

<http://www.abasesores.es>

ABASESORES 

Ondo inbertitzea denon esku dago

Santalaitz, 6
S. Lorentzo Industrialdea
Tel.: 943 - 76 54 35
20570 BERGARA



Haurrak eskolara joaten dira eta beste neska-mutilen egoera berdina izan nahi dute.

Hemengoak izan nahian

Bada horrela dioen arabiar kondaira: "bazen behin batean merkatori bat. Merkatura joan zen goiz batean, atarian gosez akabazten zegoen behartsu bat ikusi zuen. Merkatoriak kobrezko bi txanpon eman zizkion. Iluntzean, bi gizonak berriz topo egin zuten. 'Zer egin duzu eman dizkizudan bi txanponekin?', galdetu zion merkatoriak. 'Batekin ogia erosi dut, ahora zer eraman edukitzeko', erantzun zion eskale

Portugaldik alde egin zuten lana, etxea eta aukera berriak aurkituko zituzten itxaropenaz. Alde batetik bestera ibili ostean, duela hiru urte Arrasatera iritsi ziren. Herria gustatu zitzairen eta hementxe gelditzea erabaki. Arrasateko Udalari erroldan sartuak izateko eskaera egin zioten, baina udalak ez die erantzunik eman. Herriko 41 erakundek portugaldarrek herriko erroldan sartuak izateko duten eskubidearen aldeko txostena sinatu dute.

behartsuak, 'bestearekin arrosa bat erosi dut, bizitzeko arrazoi bat izateko'".

Arrasaten bizi diren bi familia portugaldarrak ezagutu nituenean, kondaira zaharra etorri zitzaidan burura.

Bizitzeko gauza gutxi dute. Bi furgoneta zaharretan bizi dira. Ez dute argirik, ez dutxarrik, ez guk ditugun erosotasunak. Baina, eskale arabiarrek arrosa zuen legez, portugaldarrek ere ilusioa eta alaitasuna dau-

kate. Oso loturik dauden familiak dira. Pertsona zabalak eta zintzoak.

PORTUGALDIK ALDE

Zaldispe inguruan, Zerrajeratik gertu, bi familia bizi dira. Gurasoek 22 eta 30 urte inguru dituzte. Nahiz eta besterik iruditu, gazteak dira oso. Bizitzak gogor astindu dituen seinale. Sei haur dituzte, bederatzi hilabete eta 8 urte bitartekoak.

Duela hamar urte baino gehiago Portugaldik alde egin


zuten, Tajo ibaiaren beste aldean bizimodu eta aukera berriak aurkituko zituzten itxaropenarekin. Jaioterrian ez zuten etxerik, ohial baten azpian bizi ziren. Orain, furgonetak dira euren bizilekua. Mondragoera duela hiru urte eta erdi iritsi ziren. Hemen gustura bizi dira. Jendeak ongi jaso ditu eta ez dute inolako arazorik izan herritarrekin.

ESKEA OGIBIDEA

Lana bilatzen ahalegindu ziren, INEMen ere emana dute izena, baina Arlindok dioenez, "leku guztietan gauza bera diote. Lanik ez dagoela, eta gainera herrikoak direla lehenak lana egitekotan". Horrela bada, zertaz bizi diren galdezkerakoan, barre artean erantzuten dute "eskua luzatzeaz, badakizu zer den hori?". Hori da euren ogibidea, eskea. Ez dira lotsatzen. Orlandok argi du: "duinagoa da eskean bizitzea, lapurretan bizitzea baino. Nik ez dut inoiz lapurretarik egin, eskatu besterik ez dut egiten". Maria Irenek kontatzen du "gaur goizean eskean ibili naiz eta 1.000 pezeta lortu ditut. Erdia janaria erosteko erabili dugu, eta beste erdia, gorde egin dut. Egun guztiak ez dira berdinak, batzuetan gehiago eta besteetan gutxiago ateratzen dugu".

HAURRAK ESKOLARA

Maria Irenek ilusioz kontatzen du bere seme-alabek hiru hizkuntza dakitela: portugaleria,



Bi familia portugaldarrak furgoneta zaharretan bizi dira.

euskara eta gaztelania. Haurrak San Andresko Herri Eskolara doaz. Familiarentzat eta umeentzat poztasun handia da hau. Asteburuetan Reinak, alaba gazteenak, negar egiten du eskolara joan nahi duelako. Han beste haur batzuekin jolasten du, liburuak dauzka, margoak, jostailuak.

Eskolan sartu aurretik haurrak eskolako dutxetan garbitzen dituzte, euren bizilekuan ez dute eta, garbitzeko aukerarik. Horrela, umetxoak garbi egotera ohitu dira. Eskola-

rik ez dutenean faltan sentitzen dute dutxa eta gurasoei garbitzeko eskatzen diete.

ARRASATEAR IZAN NAHIAN

Portugaldarrek aspaldi egin zioten udalari Arrasateko erroldan sartuak izateko eskaera. Edonork, herri batera iristean, herriko erroldan sartua izateko eskubidea du. Baina Arrasateko Udalak ez dio baieztatu erantzunik eman portugaldarrek egindako eskaerari. Beste hilabete itxaron beharko dute, arrasatear diren edo ez jakiteko.

Azkenean legea betetzen bada, eta arrasatearrak badira, gizarte soldata jaso eta etxebizitza batean sartzeko aukera izango dute. Beraz, bizimodu berri bati ekin ahal izango diote. Beste edozein arrasatearren betebeharrekin eta eskubideekin.

Naiara Gorroño

41 erakundek sinatu dute SOS Arrazakeriaren txostena

- Arrasateko SOS-Arrazakeria
- Kakitzat Arrasateko Antimilitaristak
- Orkatz Skaut Taldea
- A.A.H.T.
- Familia eta Gizarte Hezkuntzarako Zentruak
- Al Andaluz
- Komite Internazionalistak
- ELA
- Ezker Sindikala
- CCOO Langile Komisioak
- Musakola Herri Eskola
- La Merced Ikastetxea
- Hautsi
- Joan Bataiatzaile Eliza Elkarteak
- Gazte Alternatiboen Kofradia Organizatua
- Amnistiaren Aldeko Batzordea
- Tunantes del Norte Antzerki Taldea
- Egizian
- Comisión Gallega
- Serro San Viator
- LAB
- Lankideak
- UGT
- Erguin Herri Eskola
- Bigarren Hezkuntzako Institutua
- Jarrai
- Asisko Frantzizko Donea
- Senideak
- EKI- Arrasateko Ekologistak
- Emakumeen Asanblada
- Arrasateko AEK
- Corazón de Encina elkarteak
- HIES Ekimena
- ESK
- STEE-EILAS
- San Andres Herri Eskola
- San Frantzisko Xabier Ikastola
- San Viator Ikastola
- Besaide Mendi Elkarteak
- Askagintza
- Harreman Mundu Taldea

“Legeak dio edonork duela herri batera iristean, bertako erroldan sartua izateko eskubidea. Honek betebeharrak eta eskubide batzuk ematen dizkio pertsonari”



Ametsak beteko ote dira?

Zaldibarren ere AEDren jaia nagusitu zen. Futbito jokalarien pankarta koloretsua lagun zutela aritu ziren final laurdenetako partidak jokatzen. Hala ere, ametsa batzuentzat baino ez zen eraiki!

Laburrak

■ GOLAVERAGE

Final erdietara iritsi da Zaldibarko futbito txapelketa. Joan den asteburuan final laurdenak jokatu zituzten eta lau talde pasatu dira final aurrekoetara. Branka Taberna, Koka Juniors, Argi Ibili eta Aurrera Bolie txapelketatik kanpo gelditu dira. Jokaturako lau partidetan gorabehera ugari izan ziren. Bar Estrellak 5 goleko aldea lortuz sailkatu zen final erdietan. Naranja Mecanicak nahiko izan zituen Argi Ibilik baino 2 gol gehiago hurrengo norgehiagoka jokatu ahal izateko. Aldibi taldeak lortu zuen

asteburuko markagailurik altuena. Marka guztiak hautsiz, 12 gol sartu zizkion Aurrera Bolie taldeari.

■ PENALTI ERABAKIORRAK

Koka Juniors eta Irati STS taldeen artean jokatutako partidak eman zion berotasuna final laurdenetako erronkari. Bi taldeek hiruna berdindu zuten. Partidaren luzapena ez zen nahiko izan markagailua aldatzeko. Penaltika erabaki behar izan zuten. Azkenean, Koka Juniors taldeak hiru gol lortu zituen eta Irati STSk, berriz, lau. Hori dela eta, Irati STS

taldea pasatu zen final erdietara. Final erdiak ere partida bakarrera izango dira. Beraz, luzapenean edo penaltika erabakitzen den finalistarik izan liteke asteburu honetan ere.

■ IRAGARPENAK BETE DIRA

Urduritasuna eta emozioa izan ziren nagusi joan den asteburuan jokatutako partidetan. Hala ere, zorteak baino txapelketan zehar izandako emaitzak nagusitu ziren markagailuan. Bar Estrella, Irati STS eta Aldibi taldeek txapelketan zehar ondo aritu direla era-

Emaitzak

Bar Estrel. 6 - Branka Tab. 1
Koka Junior. 3 - Irati STS 3 (3-4)
Naranja Mecan. 4 - Argi Ibili 2
Aldibj 12 - Aurrera Bolie 2

Hurrengoak

Zaldibat Final-Erdiak
Maiatzak 30, larunbata
12:00 Bar Estrella - Aldibi

Maiatzak 31, igandea
12:00 Naranja Mecan. - Irati STS

Zigorrola, 1 • 1. pabiloia
Tel.: 71 20 02

Uribe final laurdenetan

Astebete beranduago, baina Uribeko futbito txapelketa ere iritsi da azken aldira. Asteburuan jokatu ziren partiden ostean, dagoeneko sailkatu dira final laurdenetan arituko diren zortzi taldeak. A taldetik sailkapeneko lehenengo hiruak, Komando Alpargat, Bar Nuevo, eta Dribling pasatu dira final laurdenetara. Beste taldeetan, ordea, ez da gauza bera gertatu. B taldean esaterako, lehenengo eta hirugarren tokian zeuden bi taldeak sailkatu dira. Hau da, Kamasutra eta Lontxo taberna hurrenez hurren. D taldetik, berriz, lehenengo tokian zegoen Borrock & Roll eta E taldetik, lehenengo eta hirugarren postuetan zeuden P3000 eta El Milagro de Bautista taldeak.

Aurreikusitako sailkatuak

Uribe Auzoko futbito txapelketako final zortzirenak pasatu zituzten talde guztiek txapelketatik kanpo gelditu direnek baino puntuazio hobea zuten sailkapenean. Hala ere, izan da ezustea eman duen talderik ere. El Milagro de Bautista taldeak esaterako, Xhaassekoek baino puntu gutxiago zuten azken sailkapen taulan. Azkenean, ordea, Bautistak miraria egin eta 0 eta 3 irabazi zuen norgehiagoka, txapelketan aurrera egitea lortuz.

Partida ikusgarriak

Txapelketaren sasoi honetan norgehiagoka guztiak izaten dira ikusgarriak. Baina bada larunbatean jokatuko diren erronken artean partida aipagarri bat. Arratsaldeko 18:00etan jokatuko den Komando Alpargat-El Milagro de Bautista norgehiagokak ikusmina sortzen duten horietakoa izan daiteke. Komando Alpargat taldeak hamar gol lortu zituen joan den astean eta kontuan izanda El Milagro de Bautista taldeak joan den larunbatean lortutako garaipenari esker pasa dela final laurdenetara, partida interesgarria izango da.

Uribe auzoa txapelketa

Emaitzak

Xhaass 0 - Milagro Bautista 3
P3000 9 - Cartinajes Igamo 1
Argi Plastic 0 - Lontxo Tab. 7
Bortxitxak 2 - Dribling 5
Kom. Alpar. 10 - Mun. Txiki 4
Bar Nuevo 5 - Doble Cero 3
Borrock & - 5 - Elvis Team 3
Kamasutra 5 - Rac. Molotov 2

Hurrengo partidak

Uribe Final Laurdenak
Maitzak 30, larunbata

Iturripe A

17:00 P3000 - Bar Nuevo
18:00 Kom. Alpar. - Milagro Bau.

Iturripe B

17:00 Kamasutra - Dribling
18:00 Borrock & - Lontxo Tab.

Trofeoak ikusgai

Gautik aurrera Arrasate Kirolak dendan egongo dira ikusgai futbito txapelketako sariak. Guztira hamaika garaikur banatuko dira. Gainera talde irabazleko jokalariek kiroletako jantzi osoa jasoko dute sari modura. Beraz, txapelketan parte hartzen ari bazara, aukera daukazu lor dezakezuna ikusteko. Eta txapelketatik kanpo geratu bazara, hurrengo urtean izan beharko da.

Bestetik, hauetxek izango dira jokalaria nabarmenen sariak jasoko dituztenak:

- Atezaina:
Josu Ugartetxe (DKB).

- Jokalariak:
Xabier (Pepelus), Ramon (Argi Ibili), Aratx (Koka Juniors), Skritx (Leya) eta Boti (Los Heredia).

Pepelus taldeak sari berezia jasoko du talderik aspaldikoena izateagatik.



LASAGABASTER

ZURE BETIKO DENDA.

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 79 27 27 / 79 13 55

Gasteizko Yin Yang karate taldekoa

ISIDOR UGARTE

Espainiako karate txapelketan izan zen Leonen

— **Espainiako karate txapelketan izan zinen. Nola joan zen?**

— Open mailan aritu naiz bost taldekiderekin eta final laurdenetara iritsi ginen. Madrilgo Maguni taldeak eta Gaztela eta Leongo poliziaren taldeek irabazi zuten.

— **Txapelketa askotan parte hartzen duzu?**

— Ia astero izaten da txapelketaren bat. Buruz-buru, taldeka, selekzioarekin..., beti zerbait. Euskadiko selekzioarekin ere ari naiz.

— **Noiz hasi zinen Gasteizko taldearekin?**


— Bost urterekin hasi nintzen karatean. Lehenengo Saioa taldean izan nintzen. Irakasle Eskolan ikasten hasi nintzenez, orain dela hiru urte, hasi nintzen Gasteizen. Hiriburuan egotean aukera gehiago daukat.

— **Zer behar da karatean aritzeko?**

— Malgutasuna behar duzu, agian ez da nabaritzen, baina behar duzu. Indarra ere bai, bestela akabo. Buru hotza, bestela borrokaldian berotu egin zaitezke eta berehala kanporatzen zaituzte.

— **Borrokaldi batean berotzea gogor ordaintzen da?**

— Taktika bezala erabilgarria izan daiteke, borrokaldia galtzen ari zarenean. Aterioa belhurtzeko balio dezake, baina kontuz aritu behar zara, zeuk ere puntuazioa galtzen duzu eta, gogorregi aritzeagatik.



FUTBOLA Bigarrenarekin ezin



0 eta 1 galdu zuen preferente mailako Mondra taldeak Real Union taldearen aurka. Denboraldi honetan Atxabalpen jokatzeko aukera asko galdu zituzten. Orain denboraldiko azken partidaren emaitzaren arabera, ikusi beharko da promozioa jokatuko duten edo ez. Asteburuan Aloña Mendiren aurka arituko dira Jose Mari Barrutiabengoaren mutilak. Aurreko itzulian garaipena lortu zuten arrasatearrek. Denboraldiko norgehiagoka hau, ordea, tentsioz beteriko partida izango baita. Promozioa jokatuko Mondrak garaipena lortu behar du. Gainera, Anaitasuna eta Real Union taldeek galdu egin beharko luke. Aloña eta Mondraren arteko norgehiagoka igandean arratsaldeko 17:00etan izango da.

Emakumeak bestalde, Gernikan izan ziren igandean. 0 eta 3ko garaipena lortu zuten Esti Loitiren neskek. Kopako itzuliko lehen partida izan zen han jokatu zutena. Datorren astean Añorgaren aurka arituko dira. Igandeko garaipena dela eta, arrasatearrak gogoz arituko dira. Aurreko itzulian 4 eta 1 irabazi zieten eta añorgarrei. Emakumeen taldea larunbatean arituko da añorgatarren aurka, arratsaldeko 16:00etan.

ATLETISMOA 9 domina asteburuan



Eibarren eta Basaurin aritu ziren kirolari arrasatearrak aste-

buruan. Basaurin gazte mailako Gipuzkoako eta Euskal Herriko txapelketa jokatu zen. Unai Sarabiak urrezko domina bi lortu zituen 100 eta 200 m.ko lasterketa irabazi zituen eta. 1.000 m.tan Fernando Nogales nagusitu zen eta urrea lortu. Oscar Gavilan, disko jaurtiketan eta Jonatan Perez pertika jauzian bigarren izan ziren. Felipe Martinek, mailu jaurtiketan eta Ibai Juradok, 300 m.ko lasterketan brontzea eskuratu zuten

Eibarren jokutako haur mailako Gipuzkoako txapelketan Jon Duquek zilarrezko domina lortu zuen. Duque 150 m.ko lasterketan aritu zen. Jurdana Aiala laugarren tokian gelditu zen lastertasun proba honetan.

TXIRRINDULARITZA Ivan Velasco ere gogor ari da



Gazte mailako Fagor taldeko txirrindulariek bi probatan aritu ziren asteburuan. Larunbatean erloju kontrako taldekako proba jokatu zuten. Itsasondon jokatutako lasterketa honetan arrasatearrek 7. tokia lortu zuten. Guztira hogeita hamar aritu ziren proba honetan. Fagor taldeko Asier Atxa, Ivan Velasco, Iñaki Llodio, Xabier Aiala eta Xabier Beitia.

Igandean Donostiara abiatu ziren Fagorrekoak. Egia auzoan jokatu zen Juanjo Zabalen IV. Memorialean izan ziren. Ibilbidearen erdi aldera Ivan Velascok ihes egitea lortu zuen. Berarekin batera beste sei txirrindulari aritu ziren tropelari tiraka. Azkenean garaipena sprintean jokatu zen eta Ivanek 5. tokian amaitu zuen.

Datorren astean jai izango dute Dorletako Ama txirrindulari eskolako txirrindulariek.

ADI! ZOZKETA MUNDIALA



Joan zaitez gure jokalariekin:

Agustin Aranzabal
Julen Guerrero
Joseba Etxeberria
Rafa Alkorta

ikusi nahi badituzu

Frantziako Futbol Mundialerako
bi sarrera zozkatzen ditugu



Espainia - Nigeria

Ekainak 13, larunbata, 14:30etan.

Lehen aldiko lehenengo partida

Autobusa ordainduta

Ekainaren 5ean zozkatuko den ONCEko azken lau zenbakiak


ETXE MOBEL

MUEBLES

ALTZARIAK

**LOGELATAN
maisua**

**Zapata
arratsaldeetan
zabalik!!**



**Eta orain
2. SOLAIRUA**

**Egongela eta
sofa erakusketa**

Etxe Mobil, Deba Garaian eta Behean zehar logela, sofa, egongela eta osagarriak errazago topatzeko saltokia. 48 urteko esperientzia. Hemengo profesionalak zuzendua. **BENETAN HARRIGARRIA!**

Araba Etorbidea, 5 (ESKATU Pabilioia, San Andres auzoa) Tel. / Faxe: 79 41 82

ARRASATE

Jakion: Deba Garaiko baserriko barazki eta fruitu kontserbak

Orain urtebete sortu zen Jakion, Deba Garaiko baserriarren produkzioari irtenbide bat emateko eta bide batez, nekazariei beste aukera batzuk eskaintzeko asmoz.

Bi herri erakunde, Deba Garaiko Mendi Nekazaritzako Elkarte eta Leintz Gatzagako Udala, elkartu ziren proiektu honetan, 36 baserri-tarrekin batera. Denen artean Jakion sortu zuten. Leintz Gatzagako Udalak bulego bat utzi zien udaletxean. Enpresa ere udaletxetik hogeit metro-ra dago.

Jakionez artesau metodoak erabiltzen ditu barazki eta fruitu kontserbak egiteko. Ez du, gainera, ez gehigarrik ez koloratzailerik botatzen jakietan: barazkiei gatza eta limoi ura eransten zaie; marmeladei, ostera, azukrea eta limoi ura. Besterik ez. Hala ere, Osakidetzak agintzen dituen osasun baldintza guztiak betetzen ditu bai instalazioetan bai-



Arantzazu Iñarra eta Susana Aiaitui Leintz Gatzagan.

ta produkzioan ere. Horregatik guztiagatik, Jakionen produktuak modu industrialean egindakoak baino garestixekoak dira.

MERKATU BERRIAK ZABALTZEN

Bere produkzioaren %95 baserri-tarrei erositakoa da. Hala ere, asko dira etxean barazki edo fruitu asko edukita, Leintz Gatzagara doazenak marmeladak edo egitera, ondoren etxera eramateko. Baita Jakionen tresneria erabiltzen dutenak beren produktuak landu eta beren kontura saltzeko. Hori egin zuten, adibidez, Tolosako babarrunak saltzen dituztenek.

Poliki-poliki, badoa bere produktuak han eta hemen ezagutarazten. Susana Aiaitui eta Arantzazu Iñarra jo eta ke ari dira Euskal Herrian zehar Jakion ezagutzera ematen eta merkatu berriak irekitzen.



Lehendakaria	Luis Arkauz
Idazkaria	Eugenio Otxoa
Kidea	Xabier Tramon
Kudeatzailea	Susana Aiaitui
Merkataria	Arantzazu Iñarra

Lore
Lurrindegia

Olarte kalea, 10 • ARRASATE
Tel.: 79 52 50

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 79 01 82

UNED-BERGARA
IKASTETXE ELKARTUA

1997/98 IKASTURTERAKO
AURRE-INSKRIPZIO EPEA:
Ekainaren 19tik uztailaren 30era

UNEDEN lehenengo aldiz karrera batean izena eman nahi duenak, besteak beste aurre-inskripzioa egin behar du; baita, UNEDeko ikasle unibertsitarioak izanik, beste karrera batean matrikulatu edo aldi berean bigarren karrera hasi nahi dutenek, eta Informatika edo Zuzenbide karrerak jarraitu nahi badituzte. UNEDen Sarrera Ikastaroa gaingitu eta INBADen bere ikasketak osatu dituztenek ere.

IKASKETAK:
Zuzenbidea, Geografia eta Historia, Hispaniar Filologia, Psikologia, Hezkuntza Zientziak, Filosofia, Politika Zientziak eta Soziologia, Fisika Zientziak, Matematika Zientziak, Kimika Zientziak, Industria Ingeniaritza, Informatikako Ingeniaritza Teknikoa (Sistemak eta Kudeaketa), Ekonomia eta Enpresa Administrazioa eta Zuzendaritza.

ARGIBIDEAK:
Martin Agirre Deunaren Enparantza, z/g
20570 BERGARA
Tel: 943- 76 13 42

JENDEAURRE ORDUAK:
Asteartetik ostiralera,
10:00etatik 13:00etara. goizez
16:00etatik 20:00etara, arratsaldez

JULIO GORROÑO GOITIA (ARRASATEKO BAKE EPAILEA)

“Epaitegiko liburuak sakratuak”

Eskola Politeknikoko irakaslea izan zen Julio urte luze-etan. Erretiroarekin ingeniari-ritza teknikoko liburuak alde batera utzi eta bake epaitegiko liburu potoloen artean sartu zen. Ordezko bake epaile izendatu zuten, baina laz Joseba Arregik kargua utzi zuenean, bake epaile lanak hartu zituen bere gain.

— Eskola Politeknikoaren lehenengo promozioako partaidea izan zinen; Fagorreko sortzaileen taldekoa. Nola gogoratzen dituzu egun haiek?

— Hamaika ginen taldean. Zortzi edo bederatzirenduz lan egin eta gero, ikasgaiei eutsi behar genien. Garai gogor-rrak ziren, baina taldea oso batuta zegoen, oso giro beroa genuen.

— Taldea banatu egin zen, ordea.

— Bai, ni eta beste batzuk kanpora joan ginen eta beste bostek ULGOR sortu zuten. Gernikatik itzuli nintzenean, Arrasate kooperatibaren sorreran ibili nintzen, baina Eskolatik deitu zidaten eta ingeniari-ritza eman nuen erretiroa hartu arte.

— Zer deritzozu Eskolan Humanitateak emateari?

— Humanitateak bai, baina zera hartu behar da kontuan: gaur egungo arazorik larriena denbora dela. Gero eta ikasgai gehiago ikasi behar izaten dira, baina beti denbora berdinean. Nik lehen hilabete batean ematen nuena orain hamabost egunean ematen dute. Horrela ezin dira gauzak ondo barneratu. Oinarritzokak ez diren

gauzak edo zaharkituak gertzen direnak baztertu egin beharko lirateke.

— Eta hori nork aukertzen du?

— Hor dago koska. Oso zaila da esatea hau sartzen da eta hau ez. Nik ezagutu nuen eskolan

beste izpiritu bat zegoen, parte hartzaileagoa, gauzak aldatzeko aukera ematen zuena. Katedratikoak ordea, ukiezinak ziren. Bakoitzak nahi zuena egiten zuten. Unibertsitatea beti izan da *taifasen erresuma*.

— Erretiroa hartu eta gero bake epaitegian hasi zinen ordezko bezala.

— Bai, Joseba Arregi *Kataideri* eta niri titular eta ordezko izateko proposamena egin ziguten eta onartu egin genuen. Iazko abuztuan, *Kataidek* kargua utzi egin zuen. Harrezkero bake epailearen lana egiten dut, ordezko bezala.

— Zeintzuk dira bake epailearen betebeharrak?

— Lan erreza da, baina oso lotua. Bake epaileek hainbat gauza gertatu diren



“Bake epailearen figura Iraultza Frantsesak ezarri zuen. Epai- ketak herriarengana hurreratzeko, epaileak herriko gizon zentzuduna behar zuen izan”

k dira, 'santa sanctoruma'”

fedea ematen dugu: hau eta bestea ezkondu direla edota jaio edo hil dena liburuan erregistratu dena dela. Zitazioak ere egiten ditugu eta deklarazioak hartu beste epaiketa batzuetarako. Adiskidetze egintzak ere egiten ditugu. Liskarren bat duten bi lagun elkartu eta gauzak konpontzen saiatzen gara, auzitara jo ez dezaten. Epaietak egiteko boterea ere badugu, baina gaur egun ez da erabiltzen. Lanik zatarrenak izaten dira baten bat bere etxetik kaleratu beharra eta bahiturak.

— Ezkontza asko egin dituzu?

— Gutxi, baina paper baten irakurketa baino gehiago izan daitezen arduratzen naiz. Ezkontza zibilak zazpi bat minutu irauten du. Ekitaldia hotza izan ez dadin, zenbait gomendio ematen saiatzen zara, baina batzuetan lau edo bost urtez elkarrekin bizi eta

bi seme-alaba dituzten bikoteak etortzen dira ezkontzera. Horiei zer esan behar diezu, ba?

— Noizko informatizatu epaitegiko paper guztiak?

— Jaiotzen, heriotzen eta ezkontzen liburuak sakratuak dira, *Santa Sanctoruma*. Edozer gauza aldatzeko fiskalaren baimena lortu behar da. Arrasatekoak kamara korazatueta gordetzen dira. Hiru bider erre dute epaitegia, baina ez zaie sekula ezer pasatu. Informatizatu gero, gerta liteke mani-

pulatzea..., auskalo! Eta diru kontuetan, seniparte eta horrelakoetan, gauzak argi eta garbi eduki behar dira.

— Anekdotarik izan duzu, liburuaren kontua dela eta?

— Behin gazte bat, atzerrian ezkondu behar zela eta, beharrezko paperen bila etorri zen. Liburuan gaztearen abizen berak zituen beste gizon bat zegoen erregistratuta. Gizon hura ezkondu zenean, gu nahaštu eta oiñatiarrari apuntatu genion ezkontza. Gazteak bere papera eskuan

zuela *ezkondua* zegoela ikusi zuen. Eskerrak andregaiak ez zuela ikusiko!

— Zergatik ez du oraindik Arrasatek bake epaile titularrik?

— Badakit emakume batek kargua eskuratzeko proposamena egin duela eta aztertu izan dela udalean. Baina euskara ez dakiela eta, izendapena atzeratu egin da. Egia esan, herriko bake epailea euskalduna izan beharko litzateke, nire ustez.

— Eta zuk ez zenuke kargua hartuko?

— Nik alkatearen proposamena jaso nuen bake epaile izateko. Ordezkoa behar nuela esan nion. Oraindik ez dute bake epaile titularrik ez ordetzorik izendatu. Ni neu, ordetzorik gabe, ez dut kargua hartuko eta abenduan, nire epea betetzera, joan egingo naiz. ■

“Bake epaileek hainbat gauza gertatu diren fedea ematen dugu: hau eta bestea ezkondu direla edota jaio edo hil dena liburuan erregistratutakoa dela”



Lan eskaintza

ARKO • Arrasate Komunikabideak

ATBko arduraduna

Baldintzak

- Euskara idatziz eta ahoz ondo menperatzea
- Ikus-entzunezko teknikaria izatea


- Kazetaritza ezagutzea
- Kanpoko harremanetarako gaitasuna izatea
- Gida baimena eta autoa edukitzea

Curriculumak aurkezteko epea EKAINaren 11n bukatuko da.

Curriculumak ARKOko Administrazio bulegoan jasoko dira

Otalora Lizentziatua, 31 • 20500 ARRASATE (Gipuzkoa)

Tel.: 79 02 26



Ekainaren 1era arte Kubako argazkiak daude Harresi aretoan.

Kubari begira

Harresi aretoko hormetan hogeita hamar argazki baino gehiago daude eskegita. Gaia: Kuba. Karibeko uhartean Jose Luis Irigoien argazkilariak jasotako erretratuak daude ikusgai, ekainaren 1era arte.

KAMERA LEKUKO

Bidaia batera joaten garenean bueltan gauza ugari ekartzen ditugu: oroitzapenak, bizitako uneak, eza-jututako lagunak...

Jose Luis Irigoien argazkilariak urte luzeak daramatza munduan zehar bidaiatzen. Eta gauza hauek guztiak bere argazkietan jasotzen ditu. Beti eramaten du gainean argazki kamera. Berau da herrialde bakoitzeko isla jasotzeaz arduratzen den lekukoa.

Irigoientzat garrantzitsuena da argazkietan egunerokotasuna jasotzea.

Berak dio "nik argazkietan ez ditut kableak edo gauza zatarrak ezkututzen, gauzak dauden horretan harrapatzea dut gogoko. Bizitza den moduan, dituen gauza eder eta zatarrakin".

Harresi aretoko erakusketan Kubarako joan-etorria ezagut dezakegu. Irigoien duela hamar urte joan zen Kubara lehenengoz, eta uharteko bizimoduak eta jendeak txunditu egin zuten. 96an berriz bueltatu zen. Irigoien erakusketan uharteko izadia, jendea eta ohiturak ezagut daitezke argazkiei begiratuz.

Jose Luis Irigoienek kontaktzen du bere erakusketak alaia dela, Kuba bera den bezalakoxea.

ARGAZKIA BIZITZA

Jose Luis Irigoienek gaz-

te-gaztetatik erakutsi zuen argazkigintzarako zaletasuna. Irakasle lanetan urte luzez aritu izan da. Lehiaketa ugaritan parte hartu izan du, sari piloak eskuratuz.

Lehiaketan zurrumbilotik aldendu eta argazkigintzan murgildurik ibili da Irigoien zenbait urtetan. Aldi horretan hainbat teknika landu ditu: sarritan betiko moldeak apurtuz, gai bateko edo teknika bereko argazki-multzoak aurkeztuz. Dituen argazki bildumen artean, besteak beste herrialde askotakoak, biluziak eta erretratoak daude.

Hasi da berriro lehiaketetan aurkezten eta dagoeneko hainbat sari jaso ditu espainiar estatuan eta nazioartean.

Kuba maite duzuenok, baduzue zer ikusia.

aste gazte

■ UDAKO OPORRALDIAK

• Diputazioak antolatuta, uztailean Huescan uretako ekintzak eta Lleidan askotariko ekintzak; abuztuan arroilen jaitsiera Guaran. Izena emateko epea: ekainak 1etik 26ra.

■ HIZKUNTZA EGONALDIAK

• Diputazioaren kanpainaren barruan, ingelesa ikasteko egonaldiak abuztuan, Seguran. Izena emateko epea: ekainaren 1etik 26ra.

■ ELKARTASUN BRIGADAK

• Komite Internazionalisten eskutik, Mexiko, Guatemala, Salvador eta Kuban lan brigadak udarako. Berri gehiago, Gazte Bulegoan.

■ BEKAK

• Estatu espainiarrean edo atzerrian ostalaritza praktikak burutzeko beka deialdia. Epea: ekainak 5.

■ LANA

• Ibarako Udalerako, administrazio laguntzailea behar da. Epea: ekainak 3.

• Mairagako Mankomunitateak, Nafarroan, ekonomia aholkularia behar du. Epea: ekainak 5.

• Doneztebeko Udalerako, akordeoi, piano, txistu eta tronpeta irakasleak behar dira. Epea: ekainak 8.

• Ondarroako Udalak artxi-bo-liburutegirako teknikaria behar du. Epea: ekainak 13.

• Salazar eta Nabaskuesgo Mankomunitaterako familia langile bat behar da. Epea: ekainak 15.

**Berri gehiagorako:
GAZTE ZERBITZUA**

☎ 77 00 65

MILA ESKER ARRASATE!

Guztion artean amets asteburua
gauzatu dugulako eta aurrerantzean ere
beste asko eraikiko ditugulako.



AEDren 15. urteurrena

ETXEBIZITZAK

1. Saldu

Etxebizitza salgai San Joan etxe-multzoan. Tel.: 943 - 79 98 77.

3. Errentan emateko

- Peñiscolan bungalowoa alokatzeko. Hondartzaren ondoan dago. Denontzako igerilekua dauka. Tel.: 943 - 27 01 37.

- Etxebizitza Torrevejan eta bungalowoa Santa Polan alokagai. Leku onean, hondartzatik hurbil. Tel.: 943 - 79 32 54.

- Donostian etxebizitza alokagai udarako. Tel.: 943 - 76 02 00.

- Torrevejan lau lagunentzako apartamentua alokagai: 2 gela, igerilekua, hondartza ondoan, igogailua, ikuzgailua. (San Joanetako astea 40.000 pta). Tel.: 943 - 79 53 18.

- Torrevejan etxebizitza alokatzen da 15 egun edo hilabeterako. Hondartzatik hurbil. Jantzita dago. Tel.: 943 - 78 14 72.

- Etxebizitza alokagai Peñiscolan, udako hilabeteetan. Kirolgunea: pilotalekua, igerilekua, e.a. Hondartzatik oso gertu. Tel.: 943 - 79 57 31.

- Laredon apartamendua jarriko nuke alogeran San Joan astean edo uztaileko bigarren hamabostaldian. Tel.: 943 - 79 31 47.

4. Errentan hartzeko

- Etxebizitza alokatuko nuke Arrasaten, ahal dela jantzi gabe. Tel.: 943 - 79 93 05.

- Bi logelako etxebizitza hartuko nuke alokairuan. Tel.: 943 - 77 13 87.

- Etxebizitza hartuko nuke alokairuan Arrasaten, Aretxabaletan edo Eskoriatzan. Tel.: 943 - 77 13 20. Ainhoa.

5. Etxe konpartituak

- Etxebizitza osatzeko pertsona bat behar da. Logela aparte izango du. Interesaturik baldin bazaude, etorri ikustera: Bañez doktorea, 2, 3. ezkerria.

- Gela bat alokatzen da San Andresko etxebizitza batean. Uztailaren erdialdera arte. Tel.: 943 - 79 98 70. Txema.

- Arrasateko alde zaharrean gela bat dugu alokatzeko. Berri gehiagorako, deitu gaez 943 - 79 96 79 telefonora. Jose Luis.

ETXEBIZITZAK

1. Saldu
2. Erosi
3. Errentan emateko
4. Errentan hartzeko
5. Etxe konpartituak
6. Bestelakoak

GARAJEAK

7. Saldu
8. Erosi
9. Errentan emateko
10. Errentan hartzeko
11. Bestelakoak

LOKALAK/ORUBEAK

12. Saldu

13. Erosi
14. Errentan emateko
15. Errentan hartzeko
16. Bestelakoak

LANA

17. Eskaintzak
18. Eskaerak
19. Bestelakoak

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak
21. Eskaerak
22. Bestelakoak

MOTORRA

23. Saldu

24. Erosi
25. Bestelakoak

DENETARIK

26. Saldu
27. Erosi
28. Trukatu
29. Eman
30. Hartu
31. Galdu
32. Aurkitu
33. Bestelakoak

HARREMANAK

34. Agurrak
35. Harremanak
36. Deialdiak
37. Bestelakoak



77 05 65

Arrasate Press • Otalora Lizentziatua, 31 • 20.500 (ARRASATE)
E-mail: arrasatepress@readysoft.es

Sail honetan agertzen diren iragarkiak dohainekoak dira. Partikularren iragarkiak argitaratzen ditugu bakarrik. Arrasate Pressek ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen gorabeheren erantzunkizunik. Asteazken eguerdia baino lehen delitu behar da iragarkia jartzeko.

LOKALAK

12. Saldu

- Abian dagoen negozioa salgai. Tel.: 943 - 79 34 01.

- Taberna salgai. Tel.: 943 - 77 02 11.

14. Errentan emateko

- 130 m²ko behe komertziala alokatzen da Izarra dorrean. Tel.: 79 25 26.

- Eskatu pabilioian garajea alokatzen da. Tel.: 943 - 79 59 08.

Deitu goizean edo arratsaldeko 20:00etatik aurrera.

- Andra euskaldunak etxeko lanak egin, eta umeak eta pertsona nagusiak zainduko lituzke. Arratsaldean egingo luke. Tel.: 943 - 79 07 73.

- Esperientziadun klinika laguntzailerak pertsona helduak zainduko lituzke, etxeetan edo ospitalean. Gaez ere bai. Tel.: 943 - 79 34 09.

- Taberna bateko barran lan egiteko zerbitzaria behar da. Tel.: 943 - 77 17 53.

- Tabernan zerbitzari lanetan aritzeko neska prest. Tel.: 943 - 79 68 77. Vanessa.

18. Eskaerak

- Pertsona bat behar da bi ume zaintzeko eta etxeko lanak egiteko. Tel.: 943 - 77 04 61.

- Neska bat behar da bi ume zaintzeko. Tel.: 943 - 79 78 65. Deitu 20:00etatik aurrera.

- Taberna bateko barran lan egiteko pertsona bat behar da. Tel.: 943 - 79 68 57.

- Neska gertu atariak garbitzeko. Tel.: 943 - 79 20 55. Arantxa.

- Arrasaten emakume euskal-

duna behar da etxeko lanak egin eta ume bat zaintzeko. Tel.: 943 - 76 11 57 / 943 - 79 24 33

- Ume bat zaintzeko emakume bat behar da Aramaion. Tel.: 929 - 42 23 14. Deitu 21:00etatik aurrera.

- Neska prest ile apaindegian lan egiteko. Tel.: 943 - 79 53 57. Goizez edo gaez.

- Emakume behar da umeak zaintzeko. Tel.: 943 - 77 06 50. Gaez deitu.

- Turismon lizentziatutako neska euskalduna lanerako prest. Ingelesa eta frantsesa ere menderatzen ditu.

- Lanak ordenadorez pasatzeko pertsona bat behar da. Tel.: 943 - 79 04 14.

- Zerbitzaria behar da. Tel.: 943 - 79 67 12. / 943 - 79 75 93.

19. Denetarik

- Enkarguzko margolanak (koadroak) egiten ditut. Argibideak 943-77 01 07 telefonora deituta. Ana.

IRAKASKUNTZA

20. Eskaintzak

- DBH eta LOGSEko eskolak ematen dira. Talde txikiak eta irakasle esperientziadunak. Tel.: 943 - 79 56 78.

- Edozein lehiaketatan parte hartu edo Zuzenbideko ezaguera praktikokoak izan nahi duten lizentziatuei (edo azken urteko karrerako ikasleei) zuzendutako praktikak eskaintzen dira. Tel.: 943 - 79 13 09 (13:00etatik 14:00etara).

- Eskola partikularrik ematen ditut Aretxabaletan. Tel.: 943 - 79 94 04 / 943 - 77 17 42. Mari Jose.

21. Eskaerak

- LOGSEko 1. mailako ikasle batek matematikako eskola partikularrik hartuko lituzke. Tel.: 943 - 79 68 84.

- Biologiako ikasleak matematika eskolak behar ditu. Tel.: 943 - 79 42 64. Deitu gaueko 22:00etatik aurrera.

- Ingeleseko eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 - 79 99 41. Beatriz.

- Ekonomiako eskolak hartuko nituzke. Tel.: 943 - 77 05 25.

- Frantsez eskolak hartuko nituzke.

Tel.: 943-79 79 63. Deitu arratsaldez. Igor.

MOTORRA

23. Saldu

• Motorra salgai. Yamaha berezia 250. Oso egoera onean. Tel.: 943 - 77 05 14. Asier.

• Nissan Terrano edo Ford Maverick autoen llanta orijinalak salgai. Laurak 15.000 pta. Tel.: 943 - 79 40 58. Maider.

• Erremolke eta kanpadenda salgai. Alpen-kreuzer Allure modelokoa. Nahiko berria. Tel.: 943 - 79 37 60.

• BI - BF matrikuladun autoa salgai. 110.000 km. ditu eta dieselduna da. Tel.: 943 - 76 09 12.

• Yamaha TZR 80 RR salgai. 17.000 km. VI - O matrikula. Tel.: 943 - 79 76 64.

• Lau pertsonarentzako kanpin erremolkea salgai. Aurrerapena (avance) eta sukaldea dauzka. Egoera oso onean. Prezioa 125.000 pta. Tel.: 79 49 28.

• Lekuz aldatu behar dudala eta, autoa saltzeko presa dut. Ford Escort L. Tel.: 943 - 71 53 00.

• Peugeot 205 gorria salgai. Eguzki sapaia dauka. Tel.: 943 - 76 21 70/ 943 - 77 12 04. Deitu gaueko 20:00etatik aurrera.

• Ford XR-2 salgai. Berri-berria. 250.000 pta. Tel.: 943 - 79 80 44 Lutxi.

DENETARIK

26. Saldu

• Autoaren barruan eramateko umeen aulkia salgai. Tel.: 79 44 14. Lane-gunetan 19:00etik aurrera; asteburuetan eguerdietan.

• Soinua salgai. Berria. Dimai markakoa eta tekladuna. Tel.: 943 - 79 86 59.

• Dainesse markako motor trajea salgai. Berria. 50 tailakoa. Tel.: 943 - 79 76 64.

• Hi-Fi bozgoragailu bi salgai, Avid markakoak. 15 - 150 watio, 92 dB - W - m. Tel.: 943 - 79 76 90.

• Logela salgai. Armairu bat, kabezero bat, bi gaumahai. Tel.: 943 - 77 15 84. Gauez.

• Motorrean ibiltzeko larruzko jaka salgai. Tel.: 943 - 79 40 58. Maider.

• Bi hilabeteko txakurkumea salgai. Hasky siberiarra. Tel.: 943 - 77 17 82.

• Marrazteko mahaia salgai. Erabili gabea. Neurriak: 132x93 zm. Prezio erdian. Tel.: 943 - 79 33 17. Gaueko 21:00etatik aurrera.

• Macintosh ordenadorea salgai. Centris 650 modeloa. 12 mega RAM. 80 megako disko gogorra. 7.1. Sistema. Tel.: 79 97 60.

• Sukaldean erabiltzeko etxeko tresna elektriko erabiliak salgai. Oso prezio onean. Tel.: 943 - 79 13 26.

• Correoseko lehiaketetareko gai zerrenda salgai. MAD akademiakoa. Tel.: 943 - 79 60 81.

27. Erosi

• Ehiza txakurrak eramateko bigarren eskuko eskorga merkea erosi nuke. Tel.: 943 - 78 34 64. Migel Angel.

• Disko txikiak eta handiak erosten

ditut. Tel.: 943 - 52 65 77.

29. Eman

• Bost hileko txakur mestizoa operituko nuke, ondo zaintzekotan. Tel.: 943 - 79 90 46.

31. Galdu

• Eroskiko aparkalekuan 20 konpakto zituen poltsa bat galdu nuen. Topatu duenak dei egin dezala mesedez, eskertuko da eta. Tel.: 943 - 74 14 71.


• Betaurreko graduatuak galdu ditut. Deitu 943 - 77 05 23 telefonora.

• Mutiko baten betaurrekoak, graduatuak eta montura marroia dutenak topatu badituzu, deitu mesedez telefono honetara: 943 - 79 85 25

• Erlojuaz zeukan emakume poltsa galdu nuen igandean, kaletik San Andreserainoko bidean. Tel.: 943 - 79 52 89. Goizez deitu.

32. Aurkitu


• Errealaren elastikoa aurkitu dut Zigorrolako kiroldegian. Tel.: 943 - 77 10 59.




WERU®
Ate + leihoak




ERAKUSKETA: Garro Jenerala, 2
BILTEGIA: Markulete Industrialdea, 20. pabilioia
Tel.: 79 24 12 eta 79 97 95
ARRASATE



PVC-zko ate eta leihoez gain:
moksetak,
zoru arinak,
kortxoak,
Louverdrape
kortinak,
Kortinoba, testila...



Noiz: maiatzaren 30ean eta 31n • Non: Alai Zinemaman • Orduq: 17:00etan




ARRASATEKO UDALA
Euskara Saila

Zoratzeko irratsaioa Arrasate Irratian

Bi zoro eta zu. Zoroak: Edu Abasolo eta Mikel Lizarralde. Zoroetxea: Arrasate Irratia, larunbat eguerdian, 12:00etatik 14:00etara.

Urtebete baino gehiago daramate bi gazte hauek larunbatero euren umorea eta ikuspuntu xelebrea Arrasate Irratik mikrofonoetara hurbiltzen. Magazine bat egiten dute Eduk eta Mikelek. Magazine azkarra eta zoroa. Saioaren lehenengo atalean estreinatu diren azken filmen berri ematen dute. Baina saioko saltza bigarren atalean hasten da. Hemen pertsona ospetsu bati telefonoz egiten diote elkarriketa, baina ez da nolanahiko elkarriketa. Ustekabean harrapatzen dituzte fama-ituak etxean: Andoni Aizpuru, Edurne Garmendia edo Klaudio Landa, besteak beste.

Lagunen bati txantxaren bat egin nahi izanez gero, 79



Bi zoro eta zu Arrasate Irratik magazine zoroa da.

58 40 telefonora dei dezakezue. Bi zoroak arduratuko dira lagunari adarra joteaz.

Ustekabe eta saltza gehiago ere entzungo dituzue *Bi Zoro eta Zu* saioan.

Arrasate Irratia 107.7 FM

LARUNBATA

9:00 **Egunaren harian**. (albistegia)
9:30 **Musika**
10:00-11:00 **Jailarai** haurrentzako programa. Maider Errarte, Garbiñe Perez eta Belen Aranbarrekin.
11:00-12:00 **Zoroklasikoak**. Musika klasikoa, Eugenio Etxebeste, Iñaki Olaizola eta Eusebio Iñarrarekin.
12:00-14:00 **Bi Zoro eta Zu** magazine, Mikel Lizarralde eta Edu Abasolorekin.

ASTELEHENA-OSTIRALA

GOIZ-EGUERDIZ

9:00 **Egunon Arrasate**. (albistegia)
9:30-11:00 **Goizoro**.
11:00- 13:00 Gaueko programen errepikapena.
13:00-14:00 **Goizak gaur**. (Euskadi Irratia).
14:30-16:00 **Bixau orduan**

GAUEZ

Astelehena

20:30- 21:00 **Iluntzean berriketan**.
21:00-22:00 **Jokoz kanpo**. Kirolak, Gorka Etxabe, Belen Arenas eta Rafa Mungiarekin.
22:00-23:00 **Soloik Solo**.

Asteartea

20:30- 21:00 **Iluntzean berriketan**.
21:00- 22:00 **Hitza ta Ekintza**.
22:00-23:00 **Euskal Festa**. Goizane Arana, Maider Errarte, Dabid Iglesias eta Garbiñe Perezekin.

Asteazkena

20:30- 21:00 **Iluntzean berriketan**.
21:00- 22:00 **Musika**
22:00-23:00 **KK2A**.

Osteguna

20:30- 21:00 **Iluntzean berriketan**.
21:00- 22:00 **Kaleko Hautsak astinduz**.
22:00-23:00 **Kutrelax**. Belen Arenas eta Kaittin Allenderekin.

Ostirala

20:30-21:00 **Planning Prest**.
21:00-22:00 **Music Box**.
22:00- 23:00 **Txerrendantza**
23:00-24:00 **Draxtor**. Makina musika.

■ ATBko programazioa

LARUNBATA, 30	ASTELEHENA, 1	ASTEARTEA, 2	ASTEAZKENA, 3	OSTEGUNA, 4	OSTIRALA, 5
Asteazken zehar eskainitako programa interesgarrien errepika.	13:30 Astebete . (Errepika)	13:30 Mondrasport . (Errepika)	13:30 Kaleidoskopia . (Errepika)	13:30 Mahai ingurua . (Errepika)	13:30 Kukaratxa Motel . <i>Unai Iparragirre, Betirtze Iñurritegi eta Alazne Ruiz de Munainekin</i> . Gaztetxoendako lehiaketa umoretsua.
13:30 Kukaratxa motel	20:00/20:30/21:00 Berriak .	20:00/20:30/21:00 Berriak .	20:00/20:30/21:00 Berriak .	19:15 Kukaratxa Motel . <i>Unai Iparragirre, Betirtze Iñurritegi eta Alazne Ruiz de Munainekin</i> . Gaztetxoentzako lehiaketa umoretsua.	20:00/20:30/21:00 Berriak .
14:15 Astebete	21:30 Mondrasport . <i>Itxaro Zubillaga</i> . Asteburuko kirol jardueraren errepaso zabala, Zaldibarko futbito txapelketa, gonbidatuak... eta lehiaketa astelehenero.	21:30 Kaleidoskopia .	21:00 Mahai ingurua .	20:00/20:30/21:00 Berriak .	21:30 Astebete
14:45 Ametz eguna Arrasaten izandako festari eskainitako programa.				21:30 Kukaratxa Motel .	



Zaldispe base-
rriko Elkoro-
tarrak dira
argazkikoak.
Haur txikitxo-
enak, Faustino Elkoro, hilabete
gutxi batzuk besterik ez zituen
argazkia atera zutenean. Joan
den astean 78 urte bete zitue-
la kontuan hartuta, 1920ko

udazkenean atera zutela uste
dugu. Elkorotarrak Zaldisp-
en bizi izan ziren Zerrajera sor-
tu eta handi egin arte. Zerra-
jeraren bigarren handiagotze-
an bota zuten lehenengotako
baserria izan zen. Argazkiko
protagonisten atzealdean, ura
ateratzeko erabiltzen zuten
patina ikusten da.

Zutik: Joxe Elkoro, Isido-
ro Elkoro, Bixente Elkoro eta
Dioni Elkoro.

Eserita: Domingo Elkoro
(familiako zaharrena), Jesus
Elkoro (mutikoa), Agustina
Idigoras eta Agustin Elkoro
senar-emazteak. Neskatilak
Arantxa eta Maria Elkoro dira.
Maria iaz hil zen.

*Argazkia eta berriematea:
Jesus Mari Elkoro.*

extra

Deba Garaiko Kazeta • Periódico del Alto Deba

Publizitate Departamendurako

KOMERTZIALAK

behar dira, Bergaran, Oñatin eta Arrasaten

<p>Betebeharrak:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Itxura ona • Euskaraz jakitea • Automobila 	<p>Eskaintzen da:</p> <ul style="list-style-type: none"> • Merkataritza-kontratua • Soldata finkoa + komisioa • Helburuen araberako rappelak • Plantillan sartzeko aukera
--	--

Interesatuak "EXTRA" kazetako administrazio departamendura jo dezakete:
Nafarroa Etorbidea, 23. • P.K. 218. • 20500 ARRASATE. Tel.: 79 82 68 - 79 35 99, aurrez ordua hartzeko.

A S E S O R I A

A R R A S A T E

- Juridikoa
- Zurich
- Fiskala
- aseguruak
- Laborala
- BANKINTER

Erdiko kalea, 32 - 1. 1
ARRASATE

Tel.: 943 - 79 01 47 • Faxes: 943 - 79 73 00

Udalekuak 98 ARRASATEN

Gure X. urteurrenean aukeratu zure oporrak Txatxilipurdin!



Aurten jangela zerbitzua!

UDALEKUAK HERRIAN
(6-12 urte)
(goizez eta arratsaldez)

BILIN-BOLOKA
95. urtean jaiotakoak
uztaila (goizez edo arratsaldez)




NON DAGO FESTA?

Udalekuetan 10 urtez.
Udalekuak 98

BABYLEKUAK
(3-5 urte)
uztaila (goizez edo arratsaldez)

Udalekuak auzoan



98ko UDALDIA

Udalekuetan 10 urtez.

Udalekuak 98 KANPOAN

ANDALUZIAN
(14-16 urte)
uztailaren 6tik 18ra

ASTEBETE KOSTALDEAN
(Orioko kanporean)
(12-14 urte)
uztailaren 6tik 12ra

UDALEKUAK GARAION
(10-12 urte)
uztailaren 1etik 10era

UDALEKUAK GARAION
(8-10 urte)
uztailaren 14tik 24ra

Berri gehiagorako deitu
79 54 46 telefonora.

NAFARROAN
(BEINTZA - LABAIEN)
(12-14 urte)
uztailaren 14tik 24era



iKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

Errealitate
bihurtzen diren
ametsak...

